

Aljeriako gerra

Euskaldunon Egunkaria, 1992-03-04: 2.

Frantzia bada oraindik aitortzen ez duten pekatu haundi bat: Aljeriari egindako gerra. heranegun pasa zuten telebistako F-3 kanalean Jean Marie Cavada kazetariak hain ongi zuzentzen duen programa jakingarri bat. Gaia: 'Aljeriako gerra'. Bildu zituen kazetari finak bere inguruan Aljerian borrokatu ziren gizonak, batzuk berez joan zirenak, beste batzuk sasoi hartan soldaduzka tokatuta zertan ari ziren jakin ez zutenak. Adituak ere bai: historigileak, kazetariak eta beste, eta behin eta berriz beraien artean galdezka aritu ziren, ea zergatik ez zen 1954etik aurrera hainbeste urtetan Aljerian zer pasa zen aitortzen, ez eskoletan, ez prentsan. Dena ixilik zegoela! Eta ea zergatik!, harritzen zen Cavada kazetaria bera, eta gerran bertan asko sufritu zuten han bertan zen asko, ea zergatik zegoen hori lotsaz bezala gordea! Patetikoa zen Parisen, munduko demokraziaren ispilu, hainbeste jende bildu, eta Frantzia osora, Euskal Herrian barrena Hondarrabiraino ere bai, gutxienez, zabaltzen ari ziren programa hartan, patetikoa zen nola ezin zuten beren artean ere argitu gerra 'izugarri' hartan zer pasa zen, eta batez ere, zergatik! Larousse entziklopediak berak ere esaten dizu, mugimendu bat lehertu zela 1954eko urriaren 31tik azaroaren 1era bitarteko gauean Aljerian, eta *liberazio gerra* ez zela amaitu 1962az gero, baina inor ez da ausartu, nonbait, gauzak bere izenez aipatzea: ea Aljeria, herri bezala, askatasunerako zuen eskubidea defendatzeko zen, zeren eta historigile pare batek zioenez, hura ez zen egiaz bi herrien arteko gerra izan, Frantzia barruko iskanbila besterik.

Gauzak honela nola harrituko gara, bada, herriei, teoria inpartzial batzuetatik at, praktikan dagozkien eskubideak ukatzen badizkie!